

Zer da ATENPRO?

Zein zerbitzu eskaintzen ditu?

Indarkeria matxista Telefono bitar-tezko Arreta eta Babesa Zerbitzua (ATENPRO), telelaguntza bat da, zeinaren bitartez era-biltzaileek edozein momentutan bere egoera pertsonalari erantzun egokiena emateko trebatutako pertsona batek artatuko duen Zentro batekin ha-rremanetan jarri ahal izango den. Berehalako arreta eskaintzen du urrutitik, eta gerta daitezkeen egoerei erantzun bizkorra ematea bermatzen du, eguneko 24 orduetan, eta urteko 365 egunetan, edonondik.

Arreta Zentrotik, aldika zerbitzuaren erabiltzaileekin jartzen dira harremanetan etengabeko jarraipena egiteko helburuarekin. Larrialdietan, Guneako langileak prest egongo dira planteatutako krisialdiari erantzun egokia emateko, bai bere baliabideak erabiliz bai bes-te giza baliabide batzuk edo baliabide material batzuk baliatuz.

Entzuteko desgaitasuna duten emakumeentzako zerbitzu irisgarria da (SOTA modulu): terminalean instalatutako aplikazio baten bitartez, Arreta Gunea-rekin testu mezuen bitartezko elkarrizketa bitartez harremanetan jartzea ahalbidetzen da.



Informazio gehiago:

Zure Udalaren Berdintasun edo Zerbitzu Sozialak

Tokiko Entitateei informazioa:
atenpro@femp.es

Webgunea: www.atenpro.es

Jarrai gaitzazu hemen:



@delgovbg @Atenproes



@delgovbg



Delegación del Gobierno contra la
Violencia de Genero

Atenpro



Indarkeria matxista Biktimentzako Arreta eta Babes Zerbitzua

Lasaitasuna behar duzunean, urteko 365 egunetan



Laguntza, informazioa eta aholkularitza egunaren 24 orduetan

Berehalako telefono bidezko arreta larrialdien aurrean



Arrisku egoeretan, Segurtasun Indarrei informatuko dien arreta zentro bati konektatuta

Gailu mugikorra, GPS lokalizatzailearekin



Zerbitzuan sartzeko baldintzak:

- ✓ Genero indarkeriaren biktima izatea
- ✓ Tratu txarrak eman dizkizun erasotzailearekin ez bizitzea
- ✓ Lurralde-mailakoa dauden arreta espezializatutako programetan parte hartzea
- ✓ Zerbitzuaren funtzionamendu arauak onartzea eta haien funtzionamendu egokian kooperatzea.

Sarbide baldintza horiek betetzen badituzu, ATENPRO zerbitzuan sartzea eska dezakezu toki-ko Berdintasun Zerbitzuetan edo zure helbideari dagokion Zerbitzu Sozialetan.

Informa zaitetz Zure udalean

Erabiltzaileak Zentrora egindako deiak

- Hainbat arrazoirengatik deitu ahal izango duzu: arreta psikologikoa eskatu, gizarte-langile batekin hitz egin, larrialdi-egoeren berri eman, harremanetarako datuetan edo zure egoeran izandako aldaketak jakinarazi, baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa eskatu, etab.
- Halaber, Arreta Gunetik egindako jarraipen-deiei ere erantzun ahal izango diezu.

- Larrialdi kasuetan, Arreta Gunera deitu ahal izango duzu eta handik jarriko dituzte martxan egoerari dagozkion baliabideak (Segurtasun Indar eta Gorputzei abisua, baliabide sanitarioak, etab.) eta irtenbideak emango dira.

Erabiltzaileak Arreta Gunera egindako deiak

- Zerbitzuan alta eman ondoren, Arreta Gunetik aldika deituko dizute (hamabost hilean behin edo hilean behin aukeratu dezakezu) zure egoeraren jarraipena egiteko.

- Dei hauez gain, beste gertakari nabarmenengatik (adibidez, epaiketa bat baduzu) ere jaso ahal izango dituzu deiak, edo sistema ongi dabilen egiaztatzeko.



- Azkenik, larrialdiko dei baten ondoren, larrialdien osteko jarraipeneko agenda programatuko da, alarmaren unean hasitako eskuhartzeari jarraipena emateko eta zure egoera psiko-soziala baloratzeko.